# TARTA GOXOA

Testua eta irudiak CHRISTIAN VOLTZ

Itzulpena XABIER OLARRA

Azal gogorreko liburua. 22 x 22 cm. 40 or. 13 €.

[Tarta goxoa](https://) (euskara)
ISBN 978-84-9172-175-8. Autore liburuak. Lehen irakurleak.

Un rico pastel (gaztelania)
ISBN 978-84-1343-028-7. Obras de autor. Primeros lectores.

Un rico pastel (galegoa)
ISBN 978-84-1343-027-0. Demademora.

Un pastís per berenar (katalana)
ISBN 978-84-16804-93-1. Obres d'autor. Primers lectors.

Um bolo para o lanche (portugesa)
ISBN 978-989-749-132-0. Obras de autor. Primeiros leitores.

Una merenda deliziosa (italiera)
ISBN 978-84-1343-029-4. Gli albi d'autore. Primi lettori.

Nireak egin du! Zuriñe andereñoa gonbidatu dut meriendatzera…

Bada ordubete tarta on bat prestatzen hasi naizela…

Baina dena desastre hutsa da!

Purea! Errezeta aldrebesagorik!

«Tarta goxoa» egitea ez da hain erraza. Ez antzinako errezetetan, ez gaurko gailu mugikorretan azaltzen denari jarraituta ere. Begira, bestela zer-nolako kinkan dabilen gure Anatole, bere gonbidatua badatorrela-eta estu eta larri. Prestatzen ari den tartak oso itxura txarra du, eskerrak badituen lagun atsegin batzuk, bakarrik utziko ez dutenak. Baina, Ai ene!

Izan ere, lagun horien amona, amama, amatxi eta amañiek bakoitzak bere erara egiten du tarta, eta hori ez dator bat Anatolek tarta egiteko moduaz daukan ideiarekin. Iradokitzen dizkioten osagaiak gero eta bitxiagoak dira, eta merienda goxo-goxo bat izatea nahi zuena gero eta urrutiago dago helburu horretatik.

Umorerik ez da falta Christian Voltzen istorio honetan, ez eta hain berea duen grafismo berezia ere: gauza birtziklatuak erabiliz –poteak, burdin-haria, zurezko piezak, ehun-zuntza…– osatzen ditu bere pertsonaiak, testura leunez koloreztatutako fondoetan nabarmentzen direnak. Oso liburu jostagarria, ustekabez betea eta gozogintzako ezagupenez baino asmo onez hornituagoa.




- **Gaia:** tarta bat egiteko prozesuari buruzko istorio umoretsua.
- **Norentzat:** 3 urtetik gora.
- **Nabarmentzekoak:** sukaldaritza, gozogintza, zaporeak, osagaiak; umorea, ezustekoak; collagea, birziklatzea; egitura metatzailea, errimak eta errepikapenak; «Ez da nire errua!» eta «Beti bezala, ezer ez?» (Kalandraka-Pamiela) egilearena.
- **Liburuaren lagina:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/tarta-goxoa-eusk

## Christian Voltz

(Estrasburgo, 1967)

Estrasburgoko Apainketa Arteen eskolan ikasi zuen. Irudigile eta kartel-marrazkilari dihardu, eta gazteentzako zenbait aldizkaritan ere kolaboratzen du. Haurrentzako hogei liburu inguru egin ditu, bere estilo bereziarengatik aise ezagutzen direnak. Horrez gain, animazioko film laburren zuzendari ere bada, merkatu alemanean indarra duen Ikusentzunezko ekoiztetxe batean.

https://www.christianvoltz.com

www.kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.it

www.Pamiela etxea.com
soltxate@pamiela.com




